

IV. ERANSKINA

ANTOLAKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

I.- GAI-ZERRENDIA OROKORRA

1.- Erakundearen egituraketa. Antolakuntzaren funtzionamendua: koordinazio-mekanismoak, antolakuntzaren atalak eta barneko fluxu-sistemak. Antolakuntza-diseinua: antolakuntza-diseinuaren parametroak eta kontingentzia-faktoreak. Egitura-konfigurazioak.

2.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko Entitate publikoa. Osaketa, xedeak, antolakuntza, araubide juridikoa eta kudeaketa. Lehen mailako arretari eta arreta espezializatuari dagokienez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzura adskribatuta dauden baliabideen antolamendu-egitura. Administrazio publikoetako langile motak. Pertsonal estatutarioaren sailkapena osasun-zerbitzuetan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan. Plantillaren antolamendua Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalei buruzko Dekretua.

3.- Euskadiko Osasun Politikak. 2013-2020 Osasun Plana.

4.- Zuzendaritza estrategikoa. Zuzendaritza estrategikoaren izaera. Analisi estrategikoa.

5.- Kudeaketa aurreratuko elementuak. Euskalit kudeaketa-eredua: estrategia, bezeroak, pertsonak, gizartea, berrikuntza eta emaitzak. Kudeaketako aurrerapen-mailaren ebaluazioa.

6.- Prozesukako kudeaketa. Kontzeptua. Nola bideratu prozesuetara kudeaketa-sistema bat. Prozesuetan oinarritutako kudeaketa, helburuak betetzeko.

7.- Lidergo-gaitasunen garapena. Gaitasunetan oinarritutako lidergoa. Zuzendaritza-gaitasunen diagnostikoa eta neurketa. Lidergo konpartitua, gizabanakoen gaitasunak zabaltzeko, kudeaketa-eredu aurreratuan.

8.- Kalitatearen kudeaketa. Zer da ISO 9001:2015 arauan oinarritutako kalitatearen kudeaketa-sistema? Kalitatearen kudeaketaren printzipioak. ISO 9001:2015 arauaren edukiak eta interpretazioa: baldintza orokorrak eta dokumentazioarenak; zuzendaritzaren erantzukizuna; baliabideen kudeaketa; produktua/zerbitzua gauzatzea; neurketa, analisia eta hobekuntza. ISO 9001 kalitatearen kudeaketa-sistemaren ziurtapena.

9.- Bezeroen gogobetetasunaren neurketa. Zergatik neurtu behar da bezeroaren gogobetetasuna? Gogobetetasuna neurtu aurretik aintzat hartu beharrekoak. Neurketa-tresnak eta horiek baliozkotzea.

10.- Ingurumen-arloko kudeaketa-sistema ISO 14001:2015 arauaren arabera. Irismena. Terminoak eta definizioak. Antolakuntzaren testuingurua. Lidergoa. Plangintza. Euskarria. Operazioa. Jardunaren ebaluazioa. Hobekuntza.

11.- Lan-arriskuen prebentzio-plana. Lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketa. Laneko segurtasun- eta osasun-sistema. ISO 45001:2018. Lanean segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemak - Betekizunak. OHSAS 18002:2008. Lanean segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemak - OHSAS 18001:2007 araua inplementatzeko gidalerroak.

12.- Kalitatea kudeatzeko sistemak. Adierazle-sistemak ezartzeko gidaliburua (UNE 66175:2003).

13.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren prestakuntzako kudeaketa-sistema, prestakuntza-ibilbidetan oinarritua. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan prestakuntza antolatu eta arautzeko printzipio orokorrak. Prestakuntzaren helburuak. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren prestakuntza-planetan jasotako prestakuntza-jardueren definizioa eta sailkapena. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko prestakuntza-ibilbideen eredua.

14.– Lanbide sanitarioak. Lanbide sanitarioen jarduna. Profesionalen prestakuntza.

15.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna EAEko administrazio publikoetan. Eskumenak eta eginkizunak. Antolamendu instituzionala eta koordinazioa EAEko administrazio publikoen artean. EAEko administrazio publikoen eta agintaritzen jardunean generoaren ikuspuntua txertatzeko neurriak.

16.– Datuen babesa. Xedapen orokorrak. Babesaren printzipioak. Pertsonen eskubideak. Titulartasun publikoko fitxategiak. Datuak babesteko agentzia.

17.– Administrazio-prozedura. Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua. Gizabanakoek Administrazio Publikoekin dituzten harremanen harira dauzkaten eskubideak eta administrazio-prozeduretako interesdunen eskubideak. Administrazio-egintzen betekizunak eta eraginkortasuna.

18.– Jardunaren ebaluazioa. Kontzeptua. Eskumenkako jarduna. Nola analizatu jokabideak eta horien maiztasuna. Ebaluazioa.

19.– Emozioen kudeaketa lan-ingurunean, motibazio-faktore gisa. Motibazioaren prozesua. Adimen emozionala. Emozioak eta lotura emozional kontzientea. Motibazioa eta emozioa.

20.– Komunikazio eraginkorra. Elkarriketa eraginkorrak. Behatzailea. Hitz egitea eta entzutea. Baieztapenak eta adierazpenak. Epaiak. Ekintzen koordinazioa. Eskaerak eta eskaintzak. Konfiantza.

21.– Talde-lana. Belbin talde-rolak lanean. Antzeko izaerak dituzten kideen taldeak. Sormena taldean. Lidergoa taldean. Taldeko beste rol erabakigarri batzuk. Talde galtzaileak. Talde irabazleak. Taldeen neurririk onena. Taldean lan egiteko pertsona egokien ezaugarriak. Taldeak diseinatzea.

22.– Aldaketa parte-hartzearen eta sormenaren bitartez kudeatzea. Antolamendua prozesu parte-hartzaile baterako prestatzea (esku-hartzaileak, ekimena, betekizunak, inguruko baldintzak eta benetan parte-hartzailea den lidergoa). Partaidetza-prozesuen diseinua. Prozesu parte-hartzaile baten esku-hartzaileak. Design Thinking-a berrikuntza estrategikorako.

23.– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Xedea. Aplikazio-eremu subjektiboa. Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua. Administrazio-prozeduran interesdunek beren burua identifikatzea eta sinatzea. Pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra. Prozeduretako hizkuntza. Erregistroak. Dokumentuak artxibatzea. Pertsonen elkarlana. Pertsonen agerraldia. Izapideen erantzukizuna. Ebazteko betebeharra. Ebazteko gehieneko epea etetea. Epemugak eta epeak. Administrazio-egintzen betebeharrak. Egintzen efikazia. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio-errekurtsoak: Xedapen orokorrak: Gora jotzeko errekurtsioa. Aukerako berraztertze-errekurtsoa. Berrikuspen-errekurtso berezia.

GAI-ZERRENDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1.– Mintzberg H. La estructuración de las organizaciones. Arg.: Ariel.

2.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.

- 3.– 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen.
- 4.– Zuzendaritza Nagusiaren egituraren inguruko araudia.
- 5.– 195/1996 Dekretua, uztailaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak lehen mailako arretarako atxikita dituen baliabideen antolamendu-egiturari buruzkoa.
- 6.– 194/1996 Dekretua, uztailaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak arreta espezializaturako atxikita dituen baliabideen antolamendu-egiturari buruzkoa.
- 7.– 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoarena.
- 8.– 186/2005 Dekretua, uztailaren 19koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen.
- 9.– 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duena.
- 10.– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 11.– Navas López J.E. eta Guerras Martín L.A. La dirección estratégica de la empresa. Teoría y aplicaciones. Arg.: Civitas.
- 12.– Kudeaketa Aurreratuko Eredua 2018. Euskalit.
- 13.– Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020. Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia.
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>
- 14.– Guía para una gestión basada en procesos. Euskalit.
- 15.– Cardona P. eta García-Lombardía P. Cómo desarrollar las competencias de liderazgo. Ediciones Universidad de Navarra. 2011.
- 16.– Liderazgo avanzado. Euskalit 2015.
- 17.– UNE-EN ISO 9000:2015. Kalitatearen Kudeaketa-sistemak. Oinarriak eta hiztegia (ISO 9000:2015).
- 18.– UNE-EN ISO 9001:2015. Kalitatearen Kudeaketa-sistemak. Betekizunak (ISO 9001:2015).
- 19.– Guía para la medición de la satisfacción de los clientes. Euskalit.
- 20.– UNE-EN ISO 14001:2015 Ingurumenaren arloko kudeaketa-sistemak. Baldintzak erabilera-jarraibideekin. (ISO 14001:2015).
- 21.– UNE 66175:2003. Kalitatearen Kudeaketa-sistemak. Adierazle-sistemak ezartzeko gidaliburua.
- 22.– 1580/2011 Ebazpena, irailaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko prestakuntza jardueren plangintza eta kudeaketarako irizpide orokorrak ezartzei buruzkoa (EHAA, 207 zk., azaroaren 2koa).
- 23.– 2/2012 Jarraibidea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Giza Baliabideetako zuzendariarena: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren prestakuntza-planetan jasotako prestakuntza-jardueren definizioa eta sailkapena.

24.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren prestakuntza-ibilbideen eredua. Prestakuntza-ibilbidetan oinarritutako prestakuntza-eredu estrategikoa.

25.– Palmero F., Martínez Sanchez F. Motivación y emoción. Arg.: Mc Graw Hill.

26.– Goleman D. Inteligencia emocional. Arg.: Kairós.

27.– Aguado Romo R. Es emocionante saber emocionarse. EOS argitaletxea.

28.– OHSAS 18001:2007 Lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketa-sistemak. Betekizunak.

29.– OHSAS 18002:2008 Lanean segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemak. OHSAS 18001:2007 araua inplementatzeko gidalerroak.

30.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako dena.

31.– 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa.

32.– Meredith Belbin R. Roles de equipo en el trabajo. Belbin Associates.

33.– Meredith Belbin R. Equipos directivos. Belbin Associates.

34.– Moliní E. Libro sobre participación genuina o el arte de pensar, decidir y trabajar juntos. Molini Partners in change.

<http://molini.es/wp-content/uploads/2012/03/Libro-sobre-Participacion-Genuina.pdf>

35.– Mootee Idris. Design Thinking para la innovación estratégica. Arg.: Urano.

36.– Echevarría Rafael. Ontología del lenguaje. Arg.: Granica.

37.– Echevarría Rafael. La empresa emergente. Arg.: Granica.

38.– Alles Martha. Desempeño por competencias. Arg.: Granica.

39.– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

40.– 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa.

II.– GAI-ZERRENDIA KOMUNA

1.– Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren arau orokorrak. Eskubideak eta betebeharrak. Estatutupeko langile finakoaren izaera eskuratzea eta galtzea. Ordainsariak. Lanaldia, baimenak, lizentziak. Bateriaezintasunak.

2.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen Xedapen Orokorrak. Euskadiko osasun-sistema: antolamendua eta herritarren eskubideak eta betebeharrak. Kontratu-programa. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren konfigurazioa. Zuzendaritza-antolakuntza. Kudeaketa-araubidea.

3.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren definizioa. Xedeak. Antolaketa gidaria: zerrendatzea. Zuzendaritza Nagusia: sormena. Zerbitzu-erakundeak: lege-aitorpena.

4.– Pertsonen eskubideak eta betebeharrak Euskadiko osasun-sisteman.

5.– Pazientearen autonomiaren gaineko printzipio orokorrak, eta eskubideak eta betebeharrak informazio eta dokumentazio klinikoko gaitetan. Informazio sanitarioarako eskubidea. Intimitaterako eskubidea. Pazientearen autonomiaren errespetua. Historia klinikoa. Alta-txostena eta bestelako dokumentazio klinikoa.

6.– Osasunaren arloko aurretiazko borondateak.

7.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Xedapen orokorrak: legearen xedea eta hildako pertsonen datuak. Datuak babestearen printzipioak. Pertsonen eskubideak.

8.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Jazarpen sexista.

9.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.

10.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.

11.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.

12.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024).

13.– Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana 2022-2028: Erakundearen irudia eta komunikazioa. Paziente eta erabiltzaileekiko harremanak. Kanpoko entitateekiko harremanak.

GAI-ZERREDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

1.– 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuarena.

2.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.

3.– 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituenak.

4.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.

5.– 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei dagokiena.

6.– 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun arloko aurretiazko borondateena.

7.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

8.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

9.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/eu_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf

10.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.

<https://www.euskadi.eus/libro/euskadiko-osasun-politikak-2013-2020-politicas-de-salud-para-euskadi-2013-2020/web01-a2ingkli/eu/>

11.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf

12.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024).

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_soziosanitario_estrat/eu_def/adjuntos/estrategia_sociosanitaria_187x280_eu_web.pdf

13.– Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana 2022-2028.

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_ii_euskara_plana/eu_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana.pdf